

EUSKAL HERRIKO ELIZAREN ZEREGINA
EUSKADIKO BAKEGINTZAN*

Joan Maria Uriarte
Donostiako Gotzaina

* Bartzelonako Joan Maragall Fundazioan 2006ko urriaren 5ean emandako hitzaldia.

AURKIBIDEA

SARRERA	5
---------------	---

I. HERRIAREN ITXAROPENA ZURKAIZTU

1. Itxaropen «arragotua» eta «zauritua»	6
2. Beharrezkoa da itxarotea	7
3. Elizaren esku hartzea.....	8

II. IRIZPIDE ETIKOAK ESKAINI

1. Gizabanakoaren giza eskubideak	9
2. Herrien eskubideak.....	10
3. Bakearen etika	11

III. KEINU ETA EKINTZA BAKETZAILEAK EGIN

1. Elizaren eginkizunari dagokio.....	13
2. Keinu eta ekintza batzuk	13

IV. BAKERAKO HEZI

1. Beharra eta aukerak.....	15
2. Bakerako hezkuntzaren zereginak.....	15
a) Pentsamendu kritikoaren bidez aukera politikoen grina itsua gizakoitu.....	15
b) Gure sentimenduak hezi	16
c) Gure sentiera etikoa argitu eta indartu	17
d) Jarrera eta portaera bakezaleak eta bakegileak bultzatu.....	18
3. Euskal Herriko Eliza eta bakerako hezkuntza.....	19

V. BAKOITZA ETA GIZARTEA ONEZKOAK EGITERA BULTZA

1. Onezkoak egiteko zailtasunak.....	19
2. Onezkoak egitea zer den eta egiarekin, zuzenarekin eta barkamenarekin duen zerikusia	20
3. Kristau-mezuaren ekarpena.....	22
4. Elizaren zeregina	23

VI. BAKEAREN ALDE OTOITZ

1. Bakearen aldeko otoitzaren esanahia	24
2. Bakearen aldeko otoitzaren emaitzak.....	25
3. Euskal Herriko Elizan bakearen aldeko otoitza	26
ONDORIOA: BAKEAREN ALDEKO AUKERA EGIN	26

SARRERA

Agur beroa eta adeitsua egiten dizuet hitzaldi honetara etorri zareten guztioi. Pentsabide zehatzaren eta kristau argitasun sakonaren bilgune den Joan Maragall Fundazioaren arduradunoi biziki eskertzen dizuet izendatutako gai honi buruz zuekin batera gogoeta egitera deitu izana. Ez nuke zuen ustea ustel gertatzerik nahi.

«Elizaren Gizarte Irakatsien Bilduman» oinarritutako uste sendoak argitua da Euskal Herriko Elizaren bakearen aldeko zeregin guztia: «*Elizaren eginkizuneko zati osagarria da munduan bakea eragitea*» (561. z.). «*Ebanjelioa bakearen Berri Ona baita, bere aldarrikapena ez dago bakearen ekinbidetik berezia*» (493. z.).

Bi ikuspuntu desberdin izan daitezke gai hau jorratzerakoan. Bakearen adiera bera argitzea eta Bibliatik, gogoeta teologikotik, giza zientzien ekarpenetik, bizitzak erakutsitakotik, eraikitzea litzateke lehen ikuspuntua. Ez diot bide horri jarraituko. Bakearen funtsezko alderdi bat edo bakegintzaren eragile garrantzitsu bat (bakerako edo onezkoak egiteko hezkuntza adibidez) hartuko eta era monografikoan landuko luke bigarren ikuspuntuak. Ez naiz bide horretan ere barneratuko. Sakontasunean galduko duen baina ikuspegi zabalagoa eta, aldi berean, ikuspuntu eraginkorragoa eskainiko digun bidetik jotzea aukeratu dut: bakegintzara bideratzen duten sei zeregin handi landuko ditut, sei sailetan. Horietan azalduko dut Elizak zergatik eta zertan esku hartzen duen. Hitzaldiaren gidoian daukazue sail horiek izendaturik.

«Baketu-normalizatu-onezkoak egin» hirukotea da, askoren ustean, gure gizarteari datorkion zeregin nagusi hirukoitza. Era xumean esanik, terrorismoa eta indarkeria behin betiko amaitzea esan nahi du bakegintzak. Gure gizartearen etorkizun juridiko-politikoaren esparruaz akordioa eskatzen du normalizazioak. Onezkoak egiteak, berriz, orain arte elkarrekin borrokan diharduten gizon-emakumeen eta taldeen elkarbizitza elkarren errespetuan eta onarpenean oinarritzea. Elkarrekin nahasi behar ez diren eta erabat ezin berezi diren hiru alderdi horietaz arduratzen da Euskal Herriko Eliza. Normalizazioari dagokionez, Kristau Pentsamendu Sozialetik ateratako edo horri lotutako eta bakearen ikuspuntutik mamitutako irizpide eta jarrera etikoetan oinarritutako burubideak bakarrik eskaintzen ditu. Bakegintza da Elizaren zereginen ardatz. ETaren desagerpena da funtsezkoa, ezinbestekoa; baina bakea zerbait gehiago da. Bakeak dituen alderdietan onezkoak egite horretan jartzen du gure Elizak indarrak nabarmenena. Hiru maila horietan, eta bere eremuaren barruan, noski, jakina da ez

duela beste inor baztertzeko edo inoren gainetik azaltzeko asmorik txikienik ere, laguntzekoa eta elkarlanerakoa bakarrik baizik.

Ez da esan beharrik, jakina, nire izenean bakarrik ari naiz hitzaldi honetan guztian. Eta ez Euskal Herriko gotzainen izenean. Neu bakarrik naiz, beraz, hemengo ikuspuntu eta aburuen erantzule bakarra.

I. HERRIAREN ITXAROPENA ZURKAIZTU

1. Itxaropen «arragotua» eta «zauritua»

2003tik hilketarik ez izateak eta «Anoetako Adierazpen» deituak bakearen itxaropidea piztu zuten, gutxi-asko, Euskal Herriko jende askorengan. ETAk 2006ko martxoaren 22an iragarritako «su-etenak», berriz, areagotu egin zuen itxaropide hori. Itxaropenaren udaberri giroa sumatzen zen euskal gizartean. Udaberria iraunkortu egin zuen Espainiako Parlamentuko gehienek Gobernuaren eta ETAREN arteko elkarrizketari «bai» esan ziotenean. Benedikto XVI.aren hitzak bereziki pozgarriak izan ziren fededun askorentzat: *«Xabierko Frantzisko santua bitarteko harturik, otoitz egitera deitzen zaituztet Euskal Herrian eta Espainia osoan bakeari dirudienez zabaldu zaion argiunea sendotzeko eta bide luze horretan sor daitezkeen eragozpenak gainditzeko ahaleginak gehitu ditzazuen guztiok.»* (2006-IV-5).

Udaberri itxaropentsuaren ondotik, azkar heldu da uda lehor-beroa. «Su-etenaren» seigarren hilabeterako, epaileen erabakiak, bileren eragozpenak, atxiloketak, Espainiako agintarien adierazpenak direla eta, nabarmena da ezker abertzalearen ondoeza, Gobernuaren jokabide horrek, ezker abertzalearen ustez, «ETAk pixkana-pixkana etsitzea eta erabat amore ematea» eta «presoen truk bakea» eskaintzea bilatzen baitu. Gobernuak bere aldetik ez du Batasuna legez kanpora uzten duen Partiduen Legea aldatu nahi. Presoen egoera gizakoitzeko eta gizarteko egonezina lasaitzeko hartu beharko lirajtekeen neurriez ez du iritzi bera. Ezker abertzaleak legeztatzeko eskabidea egin behar duenari eta Alderdien Mahaian esertzeko bakezko eta demokrazia-zko bideak bakarrik erabiliko dituela aitortzen duten estatutuak aurkezteari irmo eusten dio gobernuak. «Bake-prozesuan» aurrera egiteko kale borroka argi eta garbi gaitzetsi behar da. Euskal Herriaren erabakimenaren kontrako jarrera agertzen du.

Elkarren arteko irain eta kontrakeria ugariok sendotu egiten du muzin egitekoa ez den euskal herritar multzoaren ustea, hau da, Gobernuak hartutako bidea ez dela bakearen bidea, are gutxiago, multzo uzkur horren bidea.

Hotz-beroen aldaketa unetxoen artean, berriz, itxaropide txinpartak piztarazten dituzten hitzak, keinuak, ospatutako edo aldarrikatutako bilerak tartekatzen dira.

Baliteke tirabira hauetako batzuk egiazkoak izatea eta beste batzuk antzerki-itxurakoak. Baina bakea irrikatzen duen herriaren zati handi bat, noraezean, ahozabalik, dago eta itxaropenaren eta etsipenaren gorabeheretan katramilatua, une bakoitzeko zirrara bizigarrien edo kezkarrien arabera. «Prozesua galgatu» eta bistak lanbrotuak dauden irudia zabaldu da azken asteotan. Hala ere, bada hauspotu beharreko itxaropide sendoko ilinti bat. Ez daiteke herria etsita dagoenik esan. Bai, ordea, itxaropen gehigarri baten beharrean dagoela bakerako bidean sortuko diren une zailak gainditzeko gai izan dadin.

2. Beharrezkoa da itxarotea

Arazo handiak konpontzeko ezinbestekoa da itxaropena. Ia ezinezkoa ere lortuko bailuke bizirik dagoenean. Ahuldua dagoenean gizarteko kemena galgatzten dute aspergurak eta alpergurak. Begi-ninia edo ernamuina izotzak erre dion landarea bezala da itxaropenik gabeko herria.

Altxor preziatua bezain maloa eta kontuzkoa da itxaropena. Beste porrot bat gure gizartearen hondamendi gertatuko litzateke. Inork ez du hain beharrezkoa eta hain preziatua den altxorrarekin jolasteko eskubiderik. Bakea beren esku duten eragileek itxaroten jarraitzeko pozbideak ematea beharrezkoa du gure herriak.

Eliza da eragile horietako bat. Bere egitekoari dagokio itxaropide arragotuari eustea. Elizak badezake eta itxaropide historiko honi eusten lagundu behar du egiazko itxaropide historikoak berpizteko gai den itxaropen eskatologikoaren bizigarri agorrezin hartu baitu Espiritu Santuarengandik.

Lur sakon eta jakinean botatzen ditu zainak jainkozko bertute honek. Izan ere, gaizkiaren eta bekatuaren era guztiak errotik menderatuak geratu dira Jesusen Gurutzean eta Piztueran. Gurutzeko eta Piztuerako indarrak bizirik dirau eta dihardu legami gisa munduaren bihotzean Kristoren funtsezko garaipena burutzen ari dadin historian zehar, haren Espirituaz, Gure herriaren historian ere ezarria dago fededunok bakearen aldeko otoitzaren eta konpromezuaren bidez eraginkor bihurtu behar dugun legami hori.

3. Elizaren esku hartzea

Bere eginkizuna betetzen saiatzen da Euskal Herriko Eliza. Gehienek gure artean pozik eta begirunez entzuten duten beren Gotzainen hitzak argi eta bizi gonbidatzen ditu kristauak eta entzun nahi dieten guztiak segurantzia osorik eskaintzen ez duen eta baikortasun itsuarekin bat egiten ez duen baina etorkizuneko bakean fidatzen jarraitzeko euskarria eskaintzen duen itxaropide sendoari eustera. Erantzule nagusiei argi eta garbi gogorarazten diete beren eginkizuna, ez dela itxaropidea ez ahultzea bakarrik, tirabirak lasaitzeko eta elkarrengana hurbiltzeko seinaleekin sendotzea baizik. Gotzainen deiaren oihartzun dira sarri parroketako apaizen iganderoko sermoiak. Kristaurik kezkatuenek badakite etsipenaren eta uzkurkeriaren kirats «egurasle» eta itxaropen usain gozoaren zabaltzaile izan behar dutela beren inguruan.

II. IRIZPIDE ETIKOAK ESKAINI

Euskal Herriko gizon-emakumeek eta kristauak ez dute beren itxaropenerako arnasa bakarrik behar. Egoera behar bezala neurtzen eta konpromezu argi eta arduratsura eragiten lagunduko dituen irizpide etikoak ere behar dituzte.

Irizpide hauek guztiek ez dute hondo bera. Ezinbestekoa da bakoitzaren giza eskubideei dagozkienak azpimarratzea. Horiekin batera, ordea, herrien eskubideei dagozkienak ere aipatu behar dira.

Euskal Herriko gotzainek behin eta berriz gogoratu dituzte urteetan zehar ondorengo irizpideok.

1. Gizabanakoen giza eskubideak

- a) Gure baieztapenik lehenengoen eta nagusiena giza bizitzaren aldeko bai borobila aldarrikatzea da eta, ondorioz, ETAk egiten dituen hilketei erabateko eta guztizko ezetza. 800dik gora hil ditu. Hiru urteko geldialdiaren ondoren betiko ezkutatua izango dela espero nahi dugu. Eskubiderik sakratuena zapaltzeaz gainera, arerio politikoa garbitzen duenean demokraziaren oinarriak zulatzen baitzituzten. Gainera, herritar gehien-gehienek eskabide irmoari erasotzen zioten. Familia asko apurtu dituzte. Erasotuak izan zitezkeen artean beldurra eta zukurutza eragin dute. Etsipena eta uzurtasuna erein dituzte gure herrian. Irteerarik gabeko karrika itsura eraman dituzte beren ekintzaileak. Gure herriaren izen ona zikindu dute. Gure gizartean dauden desadostasun politikoak behar bezala eztabaidatzeko eta egoki bideratzeko eragozpen handi xamarrek izan dira.

ETAren epai moral zorrotz hau, bere neurrian, bortxakeriazko ekintzak lagundu edo estali eta zurlitu dituzten gizon-emakume edo talde guztietara hedatzen da. Bahiketa makur eta enpresarioei eta profesionaleri egiten zaizkien diru-kentze guztiei ere badagokie gaitzespen hori. Kale borroka deitutako hondamen ekintzak ere ez dira moralki onargarriak.

- b) ETAren hilketen kontrako jardunak ere ez du beti bortxazko eta odolezko erantzuna saihestu. Iturri batzuek diotenez, 58 dira GALEk eta «Batallón Vasco-Español»ek hildakoak, 1978-1985 bitarte horretan batez ere. Hilketa horiek arbuio moral berdina eta egia osoak distiz egin dezan hiltzaileak nor izan ziren argitzea eskatzen dute.
- c) ETAren biktimak intzirika eta ziztaka ari zaizkio gure kontzientzia moralari. Bortxaz eta bidegabeki hildakoen familiako 3.000 pertsonak jasan dute atzaparka beldurgarria, ikerketa serioen arabera. Euskal gizarte osoak du berorien lagun, babes eta kalte-ordain izateko beharkizuna. Beren bizitzako samina politikoki ez erabiltzea eskatzen die gobernu eta alderdiei hildakoekiko begiruneak.
- d) Inoiz ere zapal ez daitezkeen giza eskubide ukiezin pilaz inguratua dago bizitzaren eskubide gorena. Errudun handiena ere ez daiteke sekulan penatua izan, are gutxiago

torturatua. Ez da erraza gertaera horietako asko zer-nola eta nork eginak diren jakitea. Baina inolaz ere asmatuak ez diren ziurtasun morala dugu. Zorrotza da torturari buruzko Elizaren irakaspena: «*debekatu egiten du tortura krimenik larrienak egiten direnean ere... Jasaten duenaren eta bere borroaren duintasuna doilortzen du torturak*» (Joan Paulo II). Gertatua argi eta garbi dagoenean, agirian gaitzetsi du Euskal Herriko Elizak jokabide bilau hori, epel eta hala-holako dela salatuko badute ere. Jardun hori erabat baztertua dela espero izateko eskubidea dugu.

- e) Gizarteko gizon-emakume guztien segurtasuna defenditzeko eskubidea eta eginkizuna dute agintariak. Agintariak ardura handia behar dute izan babes hori eskaintzerakoan beren lege eta erabakiekin inoren eskubideak eta askatasuna behar-beharrezkoa baino gehiago ez mugatzeko.
- f) Gure egunotan gaurkotasun berezia du gure artean presoan eta beren familiakoen egoerak, urruti edukitzearen ondorioak jasaten baitituzte. Ez da gizakoa preso batzuen espetxealdiaren luzapen neurrigabea, ezta preso gaixoei ezartzen zaien legezko erabakiekiko irizpide estua ere. Presoekiko etikaren irizpideek, erasotuak izan daitezkeenak erasotzaileen atzaparretatik babesteko gizarteak duen eskubidea eta beharkizuna betetzen duten aldi berean, ez zaiela presoei (are gutxiago etxekoei) askatasuna kentzetik ezinbestean egozten zaien zigorraz gain besterik erantsi behar eskatzen dute. Giza zuzentasun jatorra inolako jarrera «mendekatiak» ez orbantzea nahitaezkoa da. Nahiz «emaitza politiko» bezala nahiz «trukeko txanpon» bezala, presoak politikoki erabiltzea arbuigarria litzateke.

2. Herrien eskubideak

Gizon-emakumeen eta herrien eskubideak behar bezala errespetatzen ez direlako irauin ohi dute munduan egoera gatazkatsuek. Giza eskubideen lehentasuna jakinekoea denez, herrien eskubideen ezagupen eta zehaztapenean aurrera egin behar da. Joan Paulo IIak, Nazio Batuen Erakundearen (NBE, 1995) egindako hitzaldian, «*herrien eskubideak eta eskakizun zuzenak kontzientzia trankilaz kontuan hartzera*» deitu zuen (6. z.). Aldi berean, eskubide horien «*oinarri antropologikoak*» adierazten zuen (7. z.). Egiazko giza eskubideen maila aitortzen zien (8. z.). «*Izateko eskubidea*» (*ibid.*) aipatzen zuen horien artean. Eskubide hauek argi

zehaztea «ez da egiaz erraza» baietsi arren, «iraganeko okerrak saihestu nahi badira eta munduan ordena zuzena bideratu nahi bada atzeraezina da eskubide horiek argitzea eta zehaztea» (ibid.) gehitu zuen.

Euskal Herriko Elizaren 30 urteko denboraldi luze honetako gogoeta guztiaren buru bi irizpide osagarri eta ikuspuntu errepikagarri bat izan dira. Bi irizpideak: bakoitzaren nortasuna eta guztiekiko elkartasuna. Beren nortasunari eusteko eskubidea eta hurbiltasun, auzotasun, historia eta harreman personal, kultural eta ekonomiko lokarriak dituzten beste herriei bizkar ez emateko beharkizuna dute herri guztiek.

Euskal Herriaren gorabeheran, ez dagokio Elizari nortasunari eusteko eta elkartasuna bideratzeko ezinbesteko tresnak zein diren erabakitzea. Herriak onartutako politika-bideak errespetagarriak dira eta guztion onarekiko arrazoi larriek eskatzen ez duten bitartean ez dira nolana aldatzekoak. Baina ez dira behin betikoak eta ukiezinak ere. Giza eskubideak errespetatzen dituen eta bakezko eta demokraziazko bideetatik ezartzen eta sustatzen den erueda den bitartean, Elizak ez dezake etikaren izenean ez onartu ez arbuiatu. Ez burujabetza osoaren eskakizuna, ez autogobernu handiagoarekiko edo txikiagoarekiko atxikimendua, ez Espainiako Estatuaren parte eta osagai izan nahia, dira, berez, elizarentzat baldintzarik gabe onartu beharreko «dogma politikoak». Herritar bakoitzak ikusi beharko du zein den politika modurik zuzenena eta bakearentzat eta gizarte elkartasunarentzat egokiena. Elizari ez dagokio hori erabakitzea.

3. Bakearen etika

Ikuspuntu batetik, bakearen ikuspuntutik, daude aurreko bi irizpide horiek hezurmamituak. Ikuspuntu horrek eraman gaitu bakearen etika adieraztera.

Gure herriaren bakegintzak ETAREN desagertzea dakar, jakina. Baina ez da ekintzak gelditzea nahikoa. Bakea lortzeko konpondu behar diren arazoak ez dira hor amaitzen. Gure herrian bakerako dauden zailtasunak ulertzeko eta gainditzeko, aspalditik datorren arazoa aztertu behar da egoki. Bi herrikidetza, gutxi-asko, kontrajarriak, baita gatazkatsuak ere, agertzen dira elkarrekin temati iraunkortuak egiten diren azteraldi guztietan. Batzuek «euskaldun hutsak» jotzen dituzte beren buruak; besteek, «español hutsak»; besteek, «españolak baino euskaldunagoak»; besteek, «euskaldun eta español berdinean»; besteek, «euskaldun baino

español gehiago». Herri honetan eskubide osoz dira herritar eta halakotzat errespetatu beharrekoak.

- a) Herrikidetza anitz gatazkatsu honek elkarbizitzarako modu egoki bat aurkitu behar du. Horretarako, berriz, lehen aipatutako talde horietako bakoitzak bere zilegizko helbururen batzuk inauteko prest agertu beharko du konponbiderako elkarrizketa horretan, bete-ezinak diren talde guztien helburu guztiak baino altxor preziatuagoa eta beharrezkoagoa baita gizarte bakea. «*Hitzez edo egitez denon artean erabakitako egitasmoari muzin egiten ez dioten guztientzat behar du tokia, estutuz bederen, denon etxeak*» (*Votos para la paz*, 5-6 orr.). Helburuak inasteak ez du helburuei behin betiko uko egitea esan nahi. Alderdi bakoitzak ikusi beharko du bakearen onak zer inausketa eskatzen dion. Indar itsuaren mehatxuak edo «idartsuenaren legeak» ezarritako konponbidea ez litzateke onargarria izango. Bakeak ez luke horrelako bortxarik eta gerizarik onartuko.
 - b) Inausketa hori mingarri gertatzen zaie talde guztiei. Norbere alderdiaren politikak on handiagoa den bakearengatik men egiteak norbere handitasuna erakusten du. Baliteke botoak galtzea ere. Beren helburuak erabat betetzea baino bakearen irrika biziagoa eta presakoagoa dela gizarte hartan, gizon-emakume gehienetan, jakin behar dute alderdiek.
 - c) Azaldu ditugun argira, bakearen ikuspuntuak, gure gotzain eginkizuneko egiazko kezkek, bakearen etika horrela laburbiltzera eraman gaitu: «*Guztion artean, bakea guztiontzat*».
- Bakegile izatera deituak eta moralki behartuak gaude herritar eta talde guztiok. Ez politikoak eta agintariak bakarrik. Baita eskola eta komunikabideak, erakundeak, gizarteko taldeak eta kristau-elkartea ere. Guztion etxea eraiki, ez eraitsi, nahi duen inork ez du eraikuntza horretatik bere burua baztertu behar, ezta beste inork beste inor baztertu ere. Bakearentzat sentiera politiko guztiak dira beharrezkoak, beren ezberdintasun, tirabira eta kontrajarrerekin. Elkarrizketak bihurtu behar ditu «*ezpatak golde eta lantzak igitai*» (Ikus *Is 2*, 1-4).

- Herritar guztiok gaude bakearen onuradun izatera ere deituak. Egitasmo baztertzailleetan egoskortzeko ordez, egitasmo bateratzaileetara jo behar dugu. Egiatzko bakeak, berez, du guztion bake izateko joera.

III. KEINU ETA EKINTZA BAKETZAILEAK EGIN

1. Elizaren eginkizunari dagokio

Keinuak eta ekintzak ez direla profeten hitzaren apainduria huts, mezuaren funtsezko osagai baizik, erakusten du Eliza oinordeko duen profeten tradiziorik onenak. Oseas, Jeremias, Ezekiel erakuskizun onak dira. «Salbamen mezua onartu ez badute ere, ez hitzek, jokabideek baizik, irabaz ditzake salbamenerako», Itun Berriak dioenez (1 Pe 3,1). *Evangelii nuntiandi*-k ahapaldi askotan azpimarratzen du kristau testigantzaren oinarrizko izaera hau. «*Bizitza egiazko kristauaren testigantza da ebanjelizatzeke lehenengo baliabidea Elizarentzat*» (41. z.). Berri Onaren aldarrikapena egintzez eta hitzez egiten da (Ikus Sant 2,12). «*Bere bizitza eredu delako entzuten diozu irakasten dizunari*» (Paulo VI.a).

2. Keinu eta ekintza batzuk

Gizartean lokarri izateko eginkizuna hartu du Elizak. Nekez beteko genuke gure eginbidea hitz argigarri eta itzaropengarrietara bakarrik mugatuko balitz gure esku hartzea. Hona Jaunaren eskakizun horri erantzuteko modu batzuk.

Bada elizgizonen eta eliztarren eskueran dagoen lehen maila bat. Hildakoen etxeakoak bisitatzea, beste moduz pentsatzen dutenekin jator eta otxan hitz egitea, bakea beren helburuen gainetik jartzea politikoei eskatzea, presoan familiakoei laguntzea, bakearen gure nahi sakonaren eta bakearen bidean mugarri txiki bat jartzen ari garenaren adierazpen dira. Seinale txiki hauek, egokiak eta ugariak badira, «bake kultura» ereiten ari dira. Ziur nago, ugari dira eta ez dute inor bereizten.

Lehen maila honetan zoritxarrez, oraindik apala, gure asmoak baino askoz txikiagoa den ekimen bat aipatu beharko genuke. Aukera politiko desberdinetako fededunak bizi gara Gipuzkoako gure Elizan. Aukera horietaz hitz egitera ausartzen al gara elkarrekin? Ez al genuke elkarrizketa hori maizago, askatasunez, adiskidetasun gogoz, egin beharko? Alderdi desberdinetako kide izatea, fedea eta kristau-elkarteko kide izatea baino erabakigarriagoak al dira guretzat? Guk geuk ez badugu elkarrizketarik egiten bai al dugu politikoei eskatzeko itzalik? Gure aukeren lagun den grina itsuaren zamak hitz eginez eta elkarri entzunaz arintzeak, gure herriarentzat hain beharrezkoa den onezkoak egiteari bidea zabalduko lioke. Zauriak ixteko ordezkari ireki ditzakeen kontu minbera da, noski. Baina, ez al du saiartzeak merezi? Saiatu ere egiten gara. Emaizta batzuk miresgarriak dira, oraingoz hain ugariak ez badira ere. Tirabiren beldurrez atzeratu egiten dira bakearen aldeko ekinbide batzuk.

Gizartean oihartzun gardena duten seinale dira bakearen alde Elizak egiten dituen adierazpen publiko eta jendetsuak. Fededun gazte eta helduen Urkiolako igoerak eta gipuzkoarrek Arantzazura urtero egiten duten ibilaldiak sendotzen du parte hartzaileetan bakearen aldeko beren aukera eta gizartera hedatzen dute aukera horren oihartzuna. Gasteizen Armentiakoko zelaietan egin zen elizbarrutien arteko topaketa hartan bildu ziren 50.000 fededunena gertakizun indartsua izan zen, euskaraz irakurritako Joan Paulo IIren «*pake zale, pake egile, pake eskale*» hitzen durundak areagotua. Otoitza, gogoeta, bat egitea eta gizarteari mezua. Maila txikiagoetan egiten diren beste apalago askok lagunduta egiten dira deialdi jendetsu hauek. Datorren garizumarako otoitz-topaketa berezia eta jendetsua du burubideratua Gipuzkoako elizbarrutiak katedralean.

Era isilagoan baina eraginkorragoan talde eta alderdi politiko desberdinekin gotzainok izaten ditugun hizketaldiak aipatzekoak dira. Egoera ezagutzea, aztertzea, solaskideei entzutea eta beren artean entzunaraztea da xede. Batzuetan giza laguntza eskatzeko bide dira. Ahal dugun neurrian laguntzen ere saiartzen gara. Ordezkarri guztientzat zabalik daude, zoritxarrez, guztiek ez badute ardura bera azaltzen ere. Bakerako bidearen eraldatzaile eraginkorrak direla sinetsi nahi dut. Gutxien artean ez den gure buruaren zati bat betetzen dute. Sentimenduzko altxor ederra dugu jarria zeregin honetan.

IV. BAKERAKO HEZI

1. Beharra eta aukerak

Antropologian jakintsu eta bakearen gaian munduko aditu direnak bat datoz: bakean bizi nahia eta gatazkarako joera, biak elkarrekin, bizi dira bihotzean bi egoskor setatsu eta Mizenas ateko bi lehoiak bezala haserre bizian. Giza psikismoaren bi osagai dira gizartekoitasuna eta erasokortasuna.

Bakea nahi dugu besteengandik bizitzeko behar dugulako, beren erasotik seguru sentitzeko, maitatuak izateko, taldean onartuak izateko, maitatzeko. Lehiakide eta zapaltzaileei, ondasun gosez edo dohainen inbiriak, besteren erasoen saminaz jantzirik aurre egiteko babesgarri gisa gerezkoa dugu erasokortasuna.

Hala esaten bada ere, erasokortasuna ez da, berez, zerbait ezezkorra, mutiria, bakartia, desgilea. Gure nortasuna sendotzeko eta inguruko erasoetatik libratzeko beharrezkoa den indarra da. Defentsarik gabeko organismoa bezala da erasokortasunik gabeko pertsona. Mundua ez da «ursulinen eskolako jolaslekua». Askotan, basa-oihanaren antza du. Erasokortasunak indarkeriara jotzeko arriskua du. Besteren eskubideak indarrez zapaltzen ditugunean igarotzen dugu erasokortaunaren eta indarkeriaren arteko marra. Bakoizkeria, bidegabekeria, eskabide, egonezin giroan berrindartzen da joera hau. Giro horretan ere ez da indarkeria halabeharrez gertatzen. Boveten Eskola Berriak baietsi zuen bezala, gizakia ez da odolez bortitza. Ez gara bortitzak jaiotzen egin egiten gara mutiriak. Baieztapen horretan oinarritzen dira bakerako hezkuntzaren beharra eta aukera. Bideratu egin behar da oldarkotasuna gizarteko helburu jator eta baliotsuetara zuzenduz eta gizartekoitasuna sendotzeko motibapenak, pozbideak eta helbideak eskainiz.

2. Bakerako hezkuntzaren zereginak

a) *Pentsamendu kritikoaren bidez aukera politikoen grina itsua gizakoitu*

Ez da adierazpen zehatza, bai ordea grafikoa: «otzandu egin behar da grina politikoa». Oztantzea ez da ahultzea, bideratzea baizik. «Habi oneko» indarra dira sentimenduak eta

jarrera politikoak, baina, aldi berean, itsu eta bortitz bihurtzeko arriskua duen indar «radiaktiboa» da. Beharrezkoa da gure aukera politikoen altzoan egitura arrazoitsua sartzea.

Gure herriaren iraganaren ezagutze historiko itxurazko bat eskatzen du, lehenik, egitura horrek, bere mitifikazioa edo bere gutxiespena saiheste arren. Nire herria ez da ez munduko onena eta ez okerrena. Maitatzeko aski dut nirea dela jakitea. Den bezalakoa nahi dut, bere on eta aketsekin. Maitasun argi honek eragiten dit bere dohainak lantzeraz eta bere akatsak murriztera.

Halaber, herriaren gaurko egoeraren ikerketa zehatza eskatzen du egitura arrazoitsuak. Herri honi atxikia dagoen gatazka sozial, kultural eta politikoaren zein den eta gainditzeko kontra jartzen zaizkion eragozpenak zein diren argi aztertzea beharrezkoa da. Arrazoizkoak diren bideak eta egiaz egin ahal daitezkeenak bereiztea ere ezinbestekoa da.

Azkenik, egitura burutsuak oinarrizko formakuntza politiko-soziala eskatzen du. Gizarte eta politika zientzien baieztapen handiak geureganatzen laguntzen digu formakuntza horrek. Lan hori nork egiten du gaur? «Presa handiegia» dute alderdi politikoek. Eskolak erraz baztertzen du arlo gatazkatsu hori edo ideologiari atxikitako azalpenak ematen ditu. Gutxi batzuen gogorkeriaren eta gehienek epeltasunaren erdian gazteria noraezean ibiltzea harrizkoa al da? Formakuntza hori onartzen dutenei eskaini egin behar die Elizak. Zein neurritan eskaintzen duen ikusiko dugu.

b) *Gure sentimenduak hezi*

Arrazoiaren giltza eskuratuz bakarrik ez da lan guztia amaitzen. Aukera politikoetan hain larderiatsuak diren sentimenduak patxadatu behar dira. Nagusitasun uste ustela, zapalduaren edo saminduaren gehiegizko sentimendua, jasandako erasoek eragiten dituzten erresumina eta gorrotoa ere indartsuak eta ugariak izan ohi dira.

Bakerako ezinbestekoak diren bi sentimendu baikor nahi nituzke, beste askoren artean, nabarmendu:

- Gure aukera politikoak oso desberdinak badira ere, hil ala bizikoa da euskal herritar guztiok herri bereko seme-alabak garen sentimendu beroa izatea eta ez ohartze hotz hutsa alegia. Lokarri sendoz lotuak gaude herri horri. Hor bizi dira gure familia, gure lagunak, gure harreman sare nagusia. Hor jaio dira eta hor bizi nahi dute gure seme-alabek. Gureak dira izadia, ekonomi baliabideak, balioak, kultura, nortasun jakina. Gureak direlako zaindu eta landu behar ditugu geuretzat eta ondorengoentzat. Herri kidetza bakarreko edo bikoitzeko kide izan gaitezke eta gara. Baina ez gara elkarrekin bizitzera behartutako bi herri, bakarra baizik. Herri anitza gara. Gure seme-alabei ez diezaiekegu herri zatituaren irudia eman.
- Herri bereko kidetza sentimenduak (bakarra edo bikoitza) bakerako eta onezkoak egiteko beste sentimendu bat eragiten du: gizarte, kultur, politikako desberdintasunak, muga gisa ikusteko ordez, aberastasun gisa hartzen dira. Erdaldunek guztion altxortzat hartzen dute euskara orduan eta ahal badute ikasi ere egiten dute. Bertan sortuek ez dituzte beste leku batzuetatik etorritakoen berezitasunak euskal nortasunaren galgatazailerailiran hartzen, alde batzuen aberasgarri bezala baizik. Hurbiltze hau oraingoz goiztarregia gertatuko balitz, desberdintasunarekiko begirunea eta on-iritzia badaude, gutxienez. Norbere taldearena besteri ezartzeko tentazioa joan egin da, gutxienez, baretu.

c) *Gure sentiera etikoa argitu eta indartu*

Hona Elizarentzat nabarmena eta zirikatzailea den zerbait. Giza portaeraren alor askotatik (zuzentasunezko harreman, sexu bizitza, besteri bizkar emandako firinfarako bizimodua, ikerketa genetikoaren erabilera eta abarretik) balioespen etikoa baztertzeko joera zabaldu da. Gutxienez maila apal eta izkina batera zokoratzen da. Politikaren munduan ere gauza bera gertatzen da. Helburuak lortzea hain nahitaezkoa bihurtzen da, askotan «edozer da baliagarri» helburuak lortzeko. Baina etikarik gabeko politikak ez dezake ez herririk eraiki eta ez herririk baketu. Politika egiaz gizakoiaren bizkarrezurra da etika. Etikarik gabe, ustelkeria eta komenentzia dira nagusi politikan. Ez naiz edozein etikaz ari. Guztiek dute «berena». Ebanjelioko gizabidearekin ondo uztartzen den arrazoizko etikaz mintzo naiz. Bigarren atalburuan zirriborrotu ditugu oinarrizkoen eta gaurkoen iruditzen zaizkigun irizpide etikoak.

d) *Jarrera eta portaera bakezaleak eta bakegileak bultzatu*

Ekintzaren bidezko hezkuntza ikasteko modu ezaguna da. Elkarreragin handia da kanpoko portaeraren eta barruko jarreraren artean. Jarrerek portaerak eragiten dituzte; portaerek, berriz, jarrerak ukitzen eta sendotzen. Bakearen alde lan eginaz bihurtzen gara bakegile.

Elkarrizketa da bakearentzat funtsezkoa den portaera horietakoa. Gure harreman guztiak jatoritzeko eta aberasteko ezinbesteko bidea da. Gatazkak gainditzeko zinezko bidea da. Hala esan zien Joan Paulo II.ak Jubileoan (2000ko azaroa): *«Bai Estatuaren barne harremanetan bai nazioartekoetan, elkarrizketa tresna bazterrezina da iritzi-borroka eraikitzaile ororentzat»*. Bistakoa da Aita Santuaren baieztapenaren borobiltasuna: *«beti, bazterrezina, iritzi-borroka ororentzat»*. Borroka bortitzaren kultura elkarrizketa-kulturak ordezkatu behar du. Arazoak konpotzeke uzten ditu eta indarkeriazko eta jauntxokeriazko irtenbideak bilatzera bultzatzen du elkarrizketari uko egiteak.

Elkarrizketarako jarrera ez da jaiotzatik bertatik dugun dohaina, hezkuntzaren bidez geureganatua baizik. «Garrasitik hitzera» egiten den ibilbideko ikasketa da. Garrasiak indar basa handia du. Hitzak hezitzen du garrasia, bere indarra galdu arazi gabe, jakina.

Elkarrizketatzea ez da plaust egitea. Ez da norbere ikuspegiari muzin egitea, beste ikuspegi batzuekin norberea hobeto zehazteko jarrera izatea baizik. Ez da bakarrizketa-meta, solaskidearekiko uste onean oinarritutako entzule-hartzaile jarrera baizik. Elkarrizketaren emaitza izan ohi da, askotan, bestearekiko uste on hori. Ez du kontrakotasunak estaltzeko edo kontrarioari trikimailua jartzeko asmorik, elkarrekiko leialtasuna du berekin baizik. Iraupen handia eskatzen du. Akordiorako gogoia eskatzen du, nahiz eta urratu batzuk jasango dituela jakin.

Komunikabideetatik egiten den mezu-trukea baino eraginkorragoa da aurrez aurre egindako elkarrizketa. Komunikabideetako kaltegarri ere gertatu ohi da, gainera. Elkarrizketan ez dira burubideak borrokatzen, pertsonak dira elkarrizketatzen aurrez aurre. Jarrera-truke edo hurbilketarako modu soila baino «zerbait gehiago» gertatzen dela elkarrizketan ziurtatzen dute esperientziak eta giza jakinduriak.

3. Euskal Herriko Eliza eta bakerako hezkuntza

Bakearen alde beti egin dezakegu eta egin behar dugu gehiago. Baina, hutsegiteak eta gabeziak ukatu gabe, egiaren eta zuzenaren izenean, aitor dezagun Euskal Herriko gure Elizak bakearen alde hezitzaile-lan trinkoa egin duela eta egiten diharduela. Kristau-taldeetatik sortu edo fededun askoren kideztaz elikatu dira mugimendu bakezale garrantzitsu batzuk. Elizaren ikastetxeetan asko lantzen den helburua da: ikasleek gatazkak onez onean gainditzen ikas dezaten bakerako hezkuntza eta trebakuntza. Antzeko jokabidea erakusten zaie parrokitan eta elkarteetan nerabe- eta gazte-taldeei. Elizara joaten diren fededunek urtean zehar, sarri entzuten dituzte bakerako hezigarri diren gotzain eta apaizen mezuak. Azterketak eta irizpideak eskaintzen dizkiete beren taldeei, harpidedunei, batzartuei, komunikabideei, gure Gizarte Idazkaritzek. Urteko zenbait jaiez baliatzen dira gotzainak beren mezua emateko. Oihartzun esnatzailea eta hezitzailea izan dute elizbarrutiko eta elizbarrutiarteko batzarrek. Gatazkaren alderdi guztiak ezagutzeko, borrokaren kaltetuekin bat egiteko, bakea sutsuago irrikatzeko eta bakearen alde eraginkorkiago mugitzeko herriaren ibilera motel baina egiazkoa biziarazten eta azkartzen kristauak izan duten eragina neurtu ahal izango dugu egunen batean, agian.

Euskal Herriko Eliza bakearen bila, terrorismoaren gatzespenean eta biktimekiko on-iritzian ustela eta epela dela esatea bidegabea da eta gezur hutsa. Zoritxarrez uste oker horrek puria handia izan du ingurune askotan. Tamalgarria litzateke, ETA behin betirako desagertu ondoren, gizartean onezkoak egiteko Elizak dituen aukerak uste oker horren zabalkundeak murriztea.

V. BAKOITZA ETA GIZARTEA ONEZKOAK EGITERA BULTZA

1. Onezkoak egiteko zailtasunak

Adierarik zabalenean eta zehatzenean ulertutako bakearen arima dela onezkoak egitea baiesten du Euskal Herriko Elizak. Guztiek ez dute, ordea, onezkoak egitearen ikuspegi hain baikorra gure artean.

Zuzenaren kontra dagoela uste dute batzuek. Gizarte bidegabekeria da ez baitu egindako kalte morala ordaintzen ezta ekintza bortitzen errepikapenari bidea ixten ere. Biktimen kontrako zuzengabekeria da, horien oroimena ez baita aitortua. Beste batzuentzat, nahiz eta erlijio balioa eduki edo gizabanakoen arteko harremanetarako baliagarria zan, ez du gizarte-bizitzan «zentzurik». Gatazkak indarrez konpontzea saihesten eta guztion giza eskubideak bermatzen dituzten elkarbizitzarako arau argi, garbi eta irmoak erabakitzea da garrantzitsua. Onezkoak egitea ezinezkoa dela diotenak ere ez dira gutxi gure artean. Onezkoak egiteak sustraira jotzea esan nahi baitu eta sustrai horretan daude inork utziko ez dituen eta utzi beharrik ere ez dauzkan burubide kontrajarri eta konponezinak. Gatazkan etxekoren bat galdu duten batzuei onezkoak egitea «beretarrei» saldukeria egitea dela iruditzen zaie. Erasotzaileei barkamena ematera (kaltetu batzuen kasua) edo ia herriko plazan barkamena mendekuz eskatzera (erasotzaile batzuen kasua) behartzen dituen «inposaketa» bezala hartzen duenik ere bada.

2. Onezkoak egitea zer den eta egiarekin, zuzenarekin eta barkamenarekin duen zerikusia

Uste oker horietatik gardendutako esanahia hortu du onezkoak egiteak gatazken konponbide baketsuarekiko gogoeta teorikoak eta praktikoak. Onezkoak egitea ez da adiskide bihurtzearen berdina. Ez da, ahaztura, gertatutako guztia ahaztea, iraganaren oharren kritikoa baizik. Ez da kaltetuei eskatzeko moduko beharkizuna. Ez da inoren mendeku gogoaren tresna ere.

Alde onetik begiratuta, borrokan diharduten bi aldeek irteerarik gabeko harreman suntsitzailea alde batera uzteko eta modu eraikitzailean iragana ordaintzea, oraina eraikitzea eta etorkizuna antolatzea onartzeko prozesua da onezkoak egitea.

Azal ditzagun giltza diren adierazpen batzuk. Lortu nahi den xedea zenbat eta guztizkoagoa bihurtzen den orduan eta hondatzaileagoa da harremana. Iragana konpontzea ez da ahaztea beste moduz gogoratzea baizik. Arerioaren mina, kontrako bere ikuspegia, bere bizitza baldintzatzailea eta, inoiz, erabakitzailea aitortzea adierazten du. Norberarekiko kritiko eta bestearentzat kidekoi izatea eskatzen du. Egitez eta ez-egitez sekula santa kontrakeria suntsitzailean gehiago jausiko ez garen uste sendoa esan nahi du oraina eraikitzeak. Iragan makurrerako itzulera eragozten duten bitartekoak eta jarrerak erabakitzea da etorkizuna atontzea. Onezkoa egitea batak bestea berdintzat, desberdintzat eta giza duintasun ukiezinaz jantzizat elkar onartzea da.

Onezkoak egitea egiarekin, zuzenbidearekin eta barkamenarekin txikordatua dago, nahiz eta ez den gauza bera, gainezkatzen dituen baizik.

«Ez du egia bilatzea baztertzen, alderantziz, behartu egiten du. Ezagutu egin behar da egindako kaltea eta, ahal delarik, ordaindu» (Joan Paulo II.a). Ahazmena ez daiteke gogoramen zapaldu bihurtu, ondoez eta samin iturri, Indarkeriak sortzen duen egoera sendatu nahi badugu, indarkeria zuritzen duten burubidea, laguntzen dion giroa, iraunkortzen duten egiturak, hezurmamitzen duten jokabideak, ezabatu beharko ditugu. Baina oroimena beharko da armagabetu eta gardendu ez mamu tematia, ez gezi mendekati jaurtigarria, ez gorroto hondar, gerta dadin.

